

Herririk Herri |4|

Ibilbide zaharreko desjabetze-aktak bidali ditu ADIFek Atxondoko Udalera



Berbaz |8|

Sidahmed Mohamed Ahmed: "Sahara sahararrena da. Herrialde guztiek dakite"

Kultura |11|

'Errautsak': 70eko hamarkadan jaio zen belaunaldiko euskaldunen erretratua



Hainbat udal ordezkari eta herritar, atzo eguerdian, Durangoko udaletxe aurrean emakumeen kontrako indarkeria salatzeako elkarretaratzean. Kepa Aginako

Cafés Baqué Pilota Txapelketako finalak domekan, Apatan

KIROLA• Domekan, 11:30ean, XXV. Cafés Baqué Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte Apatan pilotalekuan. Kadeteetan Danel Elezkano eta Iñaki Artola lehiatuko dira; kolpe bizikoak dira biak. Gazteetan Ibai Arratibel eta Victor Esteban (Gorka Estebanen anaia gaztea) neurtuko dira. Iaz, Arratibel kadeteetako txapeldun geratu zen.

15

•Durango

Montevideo kalean asfalto ekologikoa jarriko dute

2

•Elorrio

Termiten kontrako tratamendua kanposantuko ermitari

6

•Berriz

Datorren urterako aurrekontua onartu du Berrizko Udalak

7

•Abadiño

Monica Romero udal egutegiko lehiaketan irabazle

6

Urte osoan etenik ez duen indarkeria salatzeako eguna

➤ Azaroaren 25aren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Durangalde osoan

➤ Abadiñoako institutuko gazteek, adibidez, indarkeriaren kontrako bideoa egin dute

3

ALKIMAX

Alquilamos soluciones







Eitua Industriegunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO



Proiektuko fase denak amaitzean irudietan ageri den moduan geratuko da Montevideo kalea.

Montevideo kalean asfalto ekologikoa ipiniko dute

Autoetako ihes-hodiek isurtzen duten kutsadura xurgatu egingo du

Montevideoko bizilagunen bizi kalitatea hobetu guran eta bertako komertzioei bultzakada bat emateko asmoz, kale hori guztiz eraberrituko dute, Eusko Jaurlaritzatik jaso dituzten 402.000 eurogaz.

Joan zen astelehenean lehenengo tarteko lanak hasi zituzten (beste hiru fase egongo dira) eta hile bian amaituko dituzte. Lehenengo fasea Zumalakarregi eta Uribarri kaleek Montevideogaz bat egiten duten bidegurutzeen artean gauzatuko dute.

Bidea eta espaloia maila berean ipiniko dituzte; orain Ezkurdin dagoen antzera. Bidea (Euskal Autonomia Erkidegoan

lehenengoz) asfalto ekologikoagaz egingo dute: material horrek autoetako ihes-hodiek isuritako kutsadura xurgatzeko ahalmena dauka; prozesu baten ondoren, sustantzia ez kaltegarri bihurtzen ditu. Azterlanek asfaltoaren eraginkortasuna jakiteko kontrolak egingo ditu, eta datuak onak badi-ra, "asfalto hori herriko beste gune batzuetan" ere txertatuko dutela dio Aitziber Irigoras alkateak.

Kontrola eramateko eremu handiagoa behar dute, eta, horregatik, Astarloa eta Olleria kaleen artean ere asfalto ekologikoa ipiniko dute datozen hile bietan. Europako hiri batzuetan (Madril, Paris eta Londres, kasurako)

dagoeneko probatu dute asfalto mota hori.

Espaloia zabalduko dutenez, bideko alde bateko aparkaleku ilara kenduko dute. Hor kendutakoak, behin-behinean, Gaztetxe ondotik trenbiderainoko lurzatian egokituko dituzte.

Azkenik, bizikletentzako erreia mantendu egingo dute; kalea eserlekuz, zuhaitzez eta kale argiz atondu eta azpiegiturak berriztatuko dituzte. ■ J.D.

Lehen fasea Zumalakarregi eta Uribarri Montevideogaz bat egiten duten tartea da

Erraldek Udaberrian jaiotako "kalitate oneneko" bildotsa Gabonetan salduko du

Udaberriko belardiekin elikatutako ardietatik jaiotako bildotsak "prezio lehiakorra" izango du

Erralde hiltzeak, EHNE eta ENBA sindikatuek eta Bizkaiko artzaiek eta harakinek osatzen duten Bizkaiko Bildotsaren Kontseiluak "bertako eta kalitateko" produktuei Gabonetako salerosketen merkatuan bultzada ematea beharrezkoa

Ohiko bildotsak ere salgai jarraituko duela jakinarazi dute Erraldeko arduradunek

dela pentsatzen dute. Horrela, Erraldek udaberrian jaiotako bildotsak —orain izoztuta daudenak— Gabonetan salgai ipiniko ditu. Bildotsak udaberriko belardietan elikatutako ardietatik jaiotako direnez, kalitate organoleptikoa "gehiago" igartzen da. Horrela, "kalitateko" produktua eskainiko dute "prezio oso lehiakorrean".

Horiekin batera, betiko bildots freskoa ere eskainiko dute. Erraldeko ordezkarien iritziz, "euskal familietan gehienetan kontsumitzen diren bildotsak kalitate eska-sekoak dira, artifizialki elikatutakoak eta kanpokoak, ehunka kilometro egin ondoren heldu direnak gure artera". ■ J.D.

6.000 euro arteko laguntza erabilera publikoko gune pribatuak argiztatzeko

Erabilera publikoko zonalde pribatuetan argiteria aldatzea diruz lagunduko du Durangoko Udalak

Durangoko Udalak diru-laguntzak emango dizkie jabekideen komunitateei erabilera publikoko gune pribatuen kanpoaldeetan argiteria berritzeko, beti ere energiaren eraginkortasuna hobetzeko helburuagaz egiten bada. 18.000

ko argiteria berriztatzeko laguntza eskaintzea da. Horrela, udalerriko argiegi dagozkien irizpideak bateratzeko asmoa ere badu Udalak, energiaren kontsumoa jasangarria eta ingurumenagaz errespetuzkoa izan dadin. Bide horretan, diru-laguntza eskatzen duen komunitate bakoitzeko, oraingo datuekin alderatuta, energiaren %40 aurrezteko lortu gura dute ekimen honegaz.

Jakinarazi dutenez, diru-laguntza, gehienez, berritze-lanen kostuaren %50ekoa izango da. Horrez gainera, proiektu bakoitzeko ezingo da 6.000 euro baino gehiago jaso. ■ J.D.

Eskaria Herritarren Arreta Zerbitzuan egin daiteke, abenduaren 15a arte

euroko diru-atala bideratu dute laguntza horietara. Eskaria Andra Maria kaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan egin daiteke, abenduaren 15a arte.

Energiaren eraginkortasuna argi azpiegituren araudian jasota dagoenez, ekimen horren helburua komunitateei kanpoalde-

Gehienez, berritze lanen kostuaren %50 jaso ahaliko da diru-laguntzetan

"Markatutako helburuak bete ditugu txartelagaz"

Urtebete igaro da +Dendak elkarteak 'Durango txartela' proiektua martxan ipini zuenetik

Proiektua martxan ipini zutenetik urtebetera, proiektuak izan duen harrerari buruz jarduteko agerraldia egin zuten +Dendak elkarteak Guillermo Oarbeaskoak eta Ipar Kutzako Ruben Saez de Buruagak. "Oso pozik gaude txartelak izan duen harreragaz", azpi-

marratu zuten. Azaroan ipini zuten 'Durango txartela' proiektua martxan, eta dagoeneko 950 dira erabiltzen duten kontsumitzaileak, eta Durangoko 95 komertzioek hartzen dute ekimeneari parte.

Erabiltzaile berriak erakartzeko asmoagaz, bestalde, abenduaren 15a arte, 5 euroko bonua jasoko dute txartela egiten dutenak. Guztira, 1.200 bonu atara ditu +Dendak, eta helburua horien bitartez beste 1.200 erabiltzaile berri lortzea dute. ■ I.E.



+Dendak elkarteak eta Ipar Kutzako ordezkariak.



DURANGALDEA

Hainbat ekimenen bitartez salatu dute emakumeen kontrako indarkeria

Abadiñoko 11 gaztek andreenganako indarkeria salatzen duten bideoa landu dute, besteak beste

Atzo, azaroaren 25ean, Durangaldeko herriek hainbat ekimen antolatu zituzten Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Esaterako, Durangon, udaletxeko plazan kontzentratu ziren eguerdian eta manifestazioa abiatu zuten arratsaldean.

bilizazio kanpainak egin zituzten, eta Atxondon, besteak beste, *Solo mia* filmaren gaineko zine foruma antolatu zuen Atxondoko Lamiak elkarteak. Berrizen, atzoko ekimenez gainera, abenduaren 10ean, 16:00etan, Las Garaipen Gipuzkoako emakumeen taldeak hitzaldia emango du Kultur Etxean.

Durangon, udaletxe aurreko kontzentrazioaren ondoren, manifestazioa egin zuten

Elorrioren ere udaletxe aurreko kontzentrazioaren ondoren, dokumentala eskaini zuten Iturrin. Iurretan udal ikastetxeetan senti-

Gaztetxoen bideoa

Abadiñoko institutuko 15 eta 16 urte arteko 11 gaztek sexu indarkeria salatzen duen *Emakumeon urratsek urratuko dute gure bidea* izeneko bideoa landu dute. Berdinsareak antolatutako *Expresatu bedur barik* lehiaketara aurkeztu eta bihar Bilbon egingo duten jaialdirako aukeratu dute: "Film laburra



Eguaztenean Errota kultur etxean aurkeztu zuten bideoa Abadiñoko institutuko gazteek.

batu garen guztion iritzien kontrastea da", dio Aitor Bizkarra abadiñar gazteak.

Hiru aste eman dituzte bideoa osatzen eta argazki, iritzi, musika eta bertsoekin jantzi dute: "Bideo

"Landu dugun bideoa batu garen guztion iritzien kontrastea da"

honegaz gaiarekiko gure ikuspuntua zein den erakutsi gura izan dugu". ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org

IURRETA

Gazte Asanbladaren 11. urteurreneko jaia gaur eta bihar

Asteburuko ekitaldietarako karpa bat ipini dute Ibarretxe kultur etxe aurreko aparkalekuan

Abesti eta guzti ospatuko du aurturten Iurretako Gazte Asanbladak bere 11. urteurrena. Gaztetxe faltan, asteburuan karpa handi batean egingo dituzte urteurreneko ekintza gehienak. Ibarretxe kultur etxearen alboko aparkalekuan atondu dute karpa hori.

Gaur, 19:30ean, hileko azken barikua dela eta enkartelada egin-

go dute, eta 20:00etan presoen aldeko ekitaldia hasiko da. Gauean kontzertua eskainiko dute hiru musika taldek: Daltondarrak, Insolventes eta Giza Proiektuak.

Zapatuan, egun osoz

Ordu bata aldera Iurretako tabernetan bertso poteoa hasiko dute bihar, Eneko Abasolo "Abarkas", Aitzol Barandiaran eta Miren Artetxe bertsolarien laguntzagaz. Bazkaltzeko, 15:00etan jesarriko dira karpan, eta bazkalostean karaokean ibiltzeko aukera egongo da. Arratsaldean kale animazioa hasiko da 19:00ak aldera, eta 21:00etan Gazte Asanbladaren urteurren ekitaldia egingo dute; Abadetxea erre zenetik hona gertatutakoak gogoratuko dituzte ekitaldian. Eguna amaitzeko, Luhartz taldearen erromeria hasiko da 23:00etan. A.U.

Urteurrenerako abestia prestatu du aurturten Iurretako Gazte Asanbladak

Abadetxea erre zenetik hona gertatutakoak gogoratuko dituzte zapatu gauean

Udala laguntzaile Pakistaneko hezkuntza proiektu batean

Irakasleen garapen profesionalerako eta hezkuntzarako zentro bati lagunduko dio Iurretako Udalak, garapenerako lankidetzaren proiektuei ematen dien diru-laguntzagaz. Proiektuak garatzen Felix Baltistán Fundazioa dabil, eta zentroa Pakistanen iparekialdean, Giglit-Batistán izeneko ingurune menditsuan dago.

Udalak 10.000 euroko diru-laguntza emango dio Baltistango emakume eta gizonen hezkuntza eta garapen profesionala bultzatzeko zentro horri. Bertan lehen hezkuntza, lanbide heziketa eta unibertsitateko irakaskuntza lantzen dute. Formazio zentroa hainbat eraikinetan sakabanatuta dago, eta dena batzeko eraikin bat egin gura dute. Proiektuaren barruan 21 irakasle formatzen dabilta, 20 eta 30 urte bitartekoak.

Felix Baltistán Fundazioa eta Felix Iñurrategi Foundation Baltistan Machulo dabilta proiektuak bultzatzen. ■ A.U.

GARAI

Peñagarikano eta Fredi Paiagaz bertso afaria bihar

Urteroko zita bihurtu den bertso afaria egingo dute bihar Garain, Otea-Loran elkarteak. Udalak antolatutako ekimen honetan Fredi Paiak eta Anjel Mari Peñagarikanok abestuko dute.

Urtero, azaro bueltan, antolatuko ohi du udalak saio hau. Aur-

ten ere, hainbat lagun elkartuko dira mahaia bueltan. Martitzenean amaitu zen izena emateko epea, eta udaletik aurrerratu digutenez, 50 lagun inguru batuko dira biharko afarian.

Iluntzeko 20:30ean ipini dute hitzordua trikipoteorako, eta gero, 21:30 bueltan, jesarriko dira mahaian. Entsalada, piper beteak, masaila saltsa, natillak eta arroz-esnea izango dituzte menuan.

Paia eta Peñagarikano bertsolariak ekingo diote, ondoren, giroa berotzeari; librean egingo dute bertsoetan. ■ M.O.

OTXANDIO

Udal materiala banatzeko ordenantza onartu dute

Udalak bere jabetzakoa den materiala uzteko baldintzak zehazten dituen araudia onartu du. Ordenantza horren bitartez, herritarrak eta kanpotik materiala uzteko eskean etortzen direnak bereiztu gura dituzte, besteak beste. Azken urteetan soi-

nuekipoa, eszenatokia, aulkiak... uzteko eskatuz eskaera dezente jaso dituzte; Gasteiztik, esaterako. Horrela, Otxandiotik kanpokoek fiantza ordaindu beharko dute materiala erabiltzearen truke.

Bestalde, gaur egungo eraginkortasun energetikoko baldintzak betetzen ez dituzten 27 kale argietako bonbilak aldatuko ditu Udalak; Zelaietarako eta Mainondorako bidean, esaterako. Energiaren Euskal erakundeak diru-laguntzak ematen dituenaz, 2012ko aurrekontuetan sartuko dute, eskaria aurtengind. ■ J.D.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02

ATXONDO

AHTaren ibilbide zaharrari dagozkion desjabetze-aktak dira Udalak dauzkanak


ADIFek zundaketekin hasteko behin-behineko desjabetzen inguruko txostenak bidali ditu

Herrigunetik gertuen dagoen ibilbidea hartuta, planoak eta desjabetzarako dokumentuak bidali ditu ADIFek Atxondoko Udalerari. Igerilekuekin eta lehengo maisu etxearen ondotik trazatutako ibilbide horretan zundaketak hasteko asmoa dauka ADIFek. Prozesu horretan, lurraldi baterako desjabetuko dituela dio dokumentuotan. Zundaketak egin eta gero, ibilbidea onartzen denean

egin litzazkete behin betiko desjabetzeak.

Egoeraren berri emateko, asteon batzarra egin dute udaltxean herritar eta lurjabeekin, eta udalak alegazioak aurkezteko asmoa dauka agertu du.

Ibilbide zaharreko planoak
Aurreko legegintzaldian, Atxondo, Abadiño eta Elorrioko alkateek eskatuta, hegoalderantzago tra-



Abiadura Handiko Trenaren gaineko muntaia. AHT gelditu elkarlana

zatatutako ibilbidea onartu zuten Eusko Jaurlaritzak eta ADIFek. Atxondoko alkate David Cobosek azaldu du ibilbide berri horri dagozkion ingurumen azterketa egiteko eskatu diotela ADIFI, baina horren

Batzar informatiboa egin dute asteon, eta Atxondoko Udalak alegazioak aurkeztuko ditu

ordez azterketa egin daukan ibilbide zaharrari heldu diotela berriro: "Ez dugu ulertzen, ze Elorrioren eta Abadiñon hasiak dituzte ibilbide berriari dagozkion lanak eta zundaketak". ■ A.U.

Gaztetxeak 12. urteurrena ospatuko du, gaur hasi eta domekara bitartean

Herrira zabaltzeko adin guztietako lagunentzako ekitaldiak antolatu ditu Gazte Asanbladak

Txan Magoaren ikuskizunagaz hasiko dira, gaur, Atxondoko Gaztetxearen 12. urteurrena ospatzen. Apatako frontoira etorriko da Txan, 18:00etan. Gazte Asanbladak ospakizun asteburu honetan "adin guztiei eta herri guztiari begirako egitaraua" antolatu gura izan duela adierazi du.

Gaur, magoaren ondoren, *Gaztetxean nahi ditugu* lemapean enkartelada egingo dute Hirubiden, eta gero omenaldia egingo diete "herriagaz eta gaztetxeagaz hartu-emonia eduki duten presoiei". Gauean eskualdeko Trastorno eta Disorders taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean.

Zapatuan umeentzako tailerrak, bertso-bazkaria eta kontzertuak izango dituzte

Zapatua, egun handia
Bihar, 11:00etan, umeentzako tailerrak ipiniko dituzte Gaztetxean, eta 14:00etan bertso bazkaria hasiko dute Gaztetxe ostean ipini duten karpas. Bertsoan Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Gorka Ostolaza ibiliko dira. Txartelak tabernetan

Bazkarirako txartelak herriko tabernetan eta Gaztetxean daude salgai, 12 eurotan

eta gaztetxean daude salgai, 12 eurotan. Bazkalostean poteo musikatuak edukiko dute, eta gauean hiru musika talderen bisita hartuko du Gaztetxeak: Carrocerias, Tribute to Rip eta Itziazar Semeak. Gero karaokean ibiliko dira. Domekan, amaitzeko, Txomin Madalenak nagusientzako ipuin kontaketa egingo du, 17:00etan. ■ A.U.

Euskal Herria kalea norabide bakarrekoa izango da

Datozen asteotan Euskal Herria kaleko seinaleztapenak aldatzen hasiko da Atxondoko Udala. Norabide bakarrekoa izango da laster kalea; aldapan beheara baino ezingo da ibilgailuekin ibili, Fuchosa ingurutik udaletxerako norantzan.

Apata barruko trafikoa gutxitzeko asmoagaz hartu du erabakia udaleko Hirigintza Batzordeak. Lurreko markak eta trafik seinaleztapenak laster hasiko dira aldatzen, eta gabonetarako norabide bakarrekoa izango da Euskal Herria kalea.

Atxondoko alkate David Cobosek azaldu duenez, Fuchosara saihesbidea egin eta gero "oraindino jendeak bide hori erbaitzeko ohitura dauka". Kale horretako trafikoa gutxitzea da aldaketaren helburua: "Apuka-apuka ohitu egingo gara herri barruan autoa bigarren ilaran utzi barik eta oinez ibiltzen". Asteon Hirigintza Batzordeak batzarra egin du auzokideekin, aldaketak azaltzeko. ■ A.U.

MALLABIA

Euskal memoriaren inguruko jardunaldiak

Izar Gorri elkarteak hainbat ekitaldi antolatuko ditu Mallabian datorren azaroaren 27rako

Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, "Euskal Herriak, herri ukatua eta zapaldua den heinean bere azalean bizi izan du historiaren faltsutze etengabea". Antolatzaileek ekitaldi ugari prestatu dituzte azaroaren 27rako. Kalejiran irten-go dira adarrekin eta txistuekin, 18:30ean petritetik. *Ahaztuen memori*a berbaldua eskainiko dute Izar Gorri elkarteak, 19:00etan,

Gabriel Augusto Martinez Moreno Sartagudako zinegotziak eta martxelo Diaz Euskal Memoria Fundazioko kideak. Herri-afarian bilduko dira elkarteak, 21:00etan; txartelak 15 euroren truke daude salgai. Fermin Valenciaren kontzertuak 23:00etan girotuko du afalostea. Kultur Etxeko zine forumean La buena nueva filma azaroaren 28an, 18:00etan, proiektatuko dute. ■ J.G.



EAE-ANVko batailoi baten argazkia, Mallabian.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

A CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta
Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

AUKERATU EZAZU ORDAINITZEKO MODUA

ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA

www.bautistamuebles.com

Santa Kurutz ind. 1 zk. LAUDIO (A-68aren 3. irteera) • Urbitarte ind. 4. partzela, 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

ELORRIO

Termiten kontra tratatuko dute kanposantuko San Roke ermita

Zurezko egiturak termitak zituelako egindako azterketak tratamendu beharra azaleratu du

Elorrioko kanposantuan dagoen San Roke ermitan termitak agertu dira, eta Udalak Durangoko TSA enpresari esleitu dizkio urgentziazko tratamendurako lanak.

Orain hile bi ohartu ziren ermitako zurezko egituraren termitak zeudela. Udal arduradunak bertara joan eta zurak "zarata handia" ateratzen zuela ohartu ziren. Egituraren egoera zelakoa zen jakiteko azterketa egin zuten, eta emaitzek argi utzi dute "tratamendua

beharrezko dela", Niko Morenoren esanetan.

Ermita ez dute itxi ez ei delako erortzeko arriskurik, baina tratamendua "lehenbailehen" egitea komenigarria dela dio azterketak, San Roke urtean erabilerarik handiena duen ermita delako: "Ez da Elorrion balio historikorik handiena duen ermita, baina balio funtzional handiena duena bai, kanposantuan dagoenez urtean zehar jenderik gehien batzen duena delako", adierazi du alkateak.

Durangoko TSA enpresari esleitu dizkiote lanak, 12.600 euroan. Lanek zenbat iraun dezaketen zehazki ez badakite ere, aste bian amaituko dituztela itxaroten dute. ■ J.D.



Ermitako zurezko egiturari erasan diote termitek.

Argiñetako nekropoliaren balioa azaltzeko hitzaldia

Abenduaren 3an, Argiñetako nekropoliaren zundaketak egiten ibili direnek hitzaldia eskainiko dute Iturri kultur etxean, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Euskal Herriko Unibertsitateko Eraikitako Ondarearen Ikerketa Taldeko kideek emango dituzte datuak: Agustín Azkara-te arkeologian katedraduna (ikerketaren koordinatzaile orokorra), Jose Luis Solaun arkeologoa eta Ander de la Fuente arkitektoa. Hitzaldian Argiñeta nekropoliaren eta bere inguruaren balio arkeologikoaren balorazioa egingo dute. Horrez gainera, etorkizunera begira, nekropoliaren eta inguruaren balioztapenari buruzko proiektuaren aurkezpena egingo dute.

Niko Moreno alkatearen berbetan, "ez da gune horren balioa bere osotasunean neurtuko duen azterketarik egin eta inguruaren benetako balioa zein den jakin gura genuen". Irailean hasi zituzten zundaketak nekropoliaren inguruan. ■ J.D.

Sortzez Garbiaren Basilikaren atzealdea ixtea baimendu dute

Sortzez Garbiaren Basilikako atzealde xitek baimena eman dio udalak basilikari. Azken aldian herriko gazte batzuen bilgune bihurtu da, eta, Niko Moreno alkatearen arabera, "hainbat kalte" eragin dituzte: zaratak, meza eta hileta-elizkizunetan, eta pintadak, esaterako. Morenoren arabera "atzealdeko atea erretzen" ere saiatu ei dira birritan.

Aspaldian gazteen bilgune bihurtu da atzealdea, eta "hainbat kalte" eragin dituzte

Bestalde, Elorrioko errugbi zelaiko 30 foko aldatuko dituzte datorren astean

Basilikako arduradunek atzealdea ez ezik mendebaldeko eremua ixteko lizentzia ere eskatu zioten udalari, baina honek atzealdea ixteko lizentzia bakarrik eman dio. Atzealdea hesitzeko lanak Basilikak ordainduko ditu.

Foko berriak errugbi zelaian Bestalde, errugbi zelaiko argiak aldatu egingo dituzte datorren astean bertan. Sei dorretxo daude zelaian eta, guztira, 30 foko berri ipiniko dituztela jakinarazi dute. 7.000 euroko diru atala bideratu dute lan horietarako. ■ J.D.

ABADIÑO

Sinbolo frankistak kentzea onartu dute, aho batez

Ezker Abertzaleko lau zinegotziak sinatutako eta atzoko udalbatzarrean udaleko beste alderdi biei proposatutako mozioan jaso dute "udalerrian dauden sinbolo frankista guztiak ahalik eta lasterren" kentzeko eskaria. Aho batez onartu zuten martitzeneko udalbatzarrean Ezker Abertzalearen proposamena.

Diktadura garaiko Etxebizitza Ministerioak eraikitako etxebizitza askoren etxaurreetan "oraindik orain sinbolo frankistak" egoteari onartezin irizita eraman zuen Ezker Abertzaleak proposamena udalbatzarrerara. Besteak beste, Falangearen uztarrria eta geziak agertzen dituzten "sinbolo horien kokapena udalari jakinaraztera gonbidatzea" ere jaso du mozioak.

Sahararrekin elkartasuna

Udalbatzarraren gai-ordenean sartu barik zegoen, baina Ezker Abertzaleko zinegotziek "urgentziazko gai" legeaz aurkeztu zuten saharar herriagazko elkartasuna adierazten duen bost puntuko idatzia. "Gaiari buruzko testu bat daukagu guk ere", adierazi zuen Garate bozeroale jeltzaleak, "eta gaia hurrengo plenorako uztea eskatzen diet proposatzaileei". Urgentziazko izendatu ondoren, abstenitu egin ziren Abadiñoko Independentiek eta EAJ mozioaren bozketan. ■ I.E.

Santutxuko iturrian egindako argazkiari lehenengo saria

Monica Romeroren argazkia eta beste hamaika jasoko ditu 2011rako Udalaren egutegiak

Herritarrek 2011ko Abadiñoko Udalaren egutegiaren argazki lehiaketara aurkeztutako ehundik gora proposamenetatik, Monica Romero Matienako bizilagunaren Santutxuko iturriaren argazkiak irabazi du lehenengo saria. Irabazlearen argazkiak eta epai-

Argazkigintzan diharduten profesionalen epaimahaiak aukeratu zituen 23 argazki, eta horietatik 12 herritarrek

mahai batek zein botoa eman duten 500 abadiñarrek aukeratu-tako beste hamaikak osatuko dute udalaren 2011ko egutegia.

Argazkigintzan lan egiten duten profesionalak osatutako epaimahaiak aurkezturiko argazkietatik 23 hautatu ondoren, horietatik onentzat jo dituzten hamabi bozkatu dituzte udalaren webgunean herritarrek.

Datozen asteetan udalaren bulego eta zentroetan doan banatuko dituzte argitaratu dituzten egutegiaren 3.000 aleak. ■ I.E.



Urkiolako Santutxuko iturriaren irudiak jaso du boto gehien.

ZALDIBAR

Trikitilari Gazteen Txapelketa domekan

Arratsaldeko 17:30ean hasita jokatu dute zortzi bikotek XIX. Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketako finala. Lau pieza jo beharko dituzte partehartzaileek: Bizkaiko trikitixa, porrusalda, *Azkorgain* fandangoa eta arin-arina. Honakoak izango dira trikitixa eta panderojo-leak, bikoteka: Jone Uria eta Jule-ne Otegi, Ander Beldarrain eta Eider Iraola, Ander Zabaleta eta Jone Pagaldai, Edurne Errandonea eta Ander Beldarrain, Itsaso Elizagoien eta Irune Elizagoien, Ainara Alberdi eta Ane Alberdi, Olatz Jaka eta Maider Ugalde eta Ane Alberdi eta Jokin Tolosa.

Olaraz pilotalekuan hasiko da Trikitilari Gazteen Txapelketako jaialdia, arratsaldeko 17:30ean

Iaz Monik Valor eta Eider Iraola zestoarrak izan ziren garai-le. Aurtengo irabazleek 330 euro jasoko dituzte.

Argazki onenak

Bestalde, ilargik eratutako argazki lehiaketan Jose Agustín Gurrutxaga bergararrarena izan da lan saritua, eta herriko saria Iñigo Bernedok eroan du. 60 lagunek hartu dute parte, guztira, 116 argazki aurkeztuz. ■ M.O.

Durangaldean labor

Literatura Astea Berrizen, Berbarok dinamizatuta

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakurketarako zaletasuna sustatzeko asmoz, Berbaro euskara elkarteak dinamizatuko duen Haur Literatura Astea antolatuko dute Berrizen. Besteak beste, Karrika antzerki taldearen *Amama lo* ipuin antzez-tua, ipuin kontalariak eta idazleekin elkar-rrizketak izango dira gozagai.

Masaje eta osasun teknika naturalak ikasgai

Abenduaren 9an eta 16an eta urtarrilaren 13an, 20an eta 27an masajearen eta erre-flexologiaren (oinetako masajea) gaineko ikastaroa eskainiko dute Iurretan Goiuria kulturgunean. Otsailean eta martxoan, berriz, osasunerako baliabide naturalei (homeopatia, osteopatia...) buruz gehi-ago jakiteko aukera eskainiko dute.

Astarloa elkarte Euskararen Egunean

Durangoko Astarloa elkarteak hainbat ekimen prestatu ditu abenduaren 3ko Euskararen Egunaren harira. Abenduaren 2an, 18:30ean, Pinondon dagoen Pedro Pablo Astarloaren eskulturaren aurrean lore-eskaintza egingo dute. 19:00etan, euskalkien inguruko hitzaldia emango du Juan Manuel Etxebarriak Elkartegian.

Kurutziaga akademia Getxoko Komiki Azokan

Kurutziaga akademia eta Areografia Kuru-tziagak gaur hasi eta domekara arte Getxon ospatuko duten komiki eta manga azo-kan parte hartuko dute. Koadro, maketa eta modelismoko elementuak eroango dituzte besteak beste, eta material hori guz-tia Getxoko azokako 13. standean ipiniko dute ikusgai.

BERRIZ

2011rako udal aurrekontua eta inbertsio plana onartu dituzte

Sarrera, gastu eta inbertsioak onartu zituzten asteleheneko udalbatzarrean

Sarrerazeingastuak 5.495.530 eurotan zehaztu dituzte 2011rako, aurrekontua orekatuz. EAJk alde bozkatu zuen, EAK kontra, eta Ezker Abertzalea eta PSE-EE abstenitu egin ziren. Gastu handien artean, %29 brigada lanetara bideratuko dute; %15 gizarte ekin-tzara; %14 euskara, kultura eta jaie-tara eta %13 gazteria eta kirolera. Ezker Abertzaleko zinegotziek aurkeztu zuten zuzenketa bakarra. Zinegotzi bakoitzaren hileko saria 688 eurotan kokatu beharrean, erdi-ra jaitea gura dute, geratuko litza-tekeen diruagaz -41.280 euro-herrian enplegua sustatzeko. EAJk eta EAK kontra bozkatu zuten, eta PSE-EE abstenitu egin zen. "Aurre-kontuak batzordeetan guztien artean landu eta orokorrean ados egon arren, zuzenketa horiez sartzeak abs-

tentziora behartzen gaitu" zioen Karmen Amezuak. Iaz ere proposa-men berbera egin, eta onartu ez arren, euren irabaziaren erdia -16.000 euro- dohaintzan eman diote udalari, txeki bitartez. "Ema-

Musika etxearen exekuzio prozesuan 332.000 euro inbertituko dituzte

kumeek Berrizko historiari eginda-ko ekarpena" ikertzeko bekasortzea proposatu zuten. "Txekazein beka-rako ziri borroa Berdintasun Batzor-dera" zuzenduko ditu Azpitartek. Eako Puri Perezek, aurrekon-tuari ezezkua arrazoitzeko, infor-meak beti euskaraz bakarrik jaso-tzen dituela eta lan-sarien banake-

taberria-alderdika beharrean zine-gotzika-ez duelako partitzen azal-du zuen, besteak beste.

Inbertsiorako asmoak
Lau proiektu lehenesten dira inber-tsioetan. "Hasiera batean" 2010eko soberakinekin aterako lirateke aurrera, eta bestela laguntza bidez. Learreta-Markina eskolako patioaren bigarren faseak 529.107 euro hartuko ditu. 2011-2012 kur-tso hasierarako amaitzea gura dute. Musika etxearen exekuzio prozesuan 332.000 euro inberti-tuko dituzte, 2011n hasi eta amai-tzeko asmoz. Berrizburuko ortue-tarako 150.000 euro; eperik gabe. Nagusientzako zerbitzu bat -bes-te erakunderen bategaz elkarla-nean- sortzea aztertzen hasteko konpromisoa ere badute. ■ M.O.



Learreta-Markina eskolako patioaren zabalpena amaituko dute.

Hiltegirako sarbidea egiteko beste urrats bat gehiago

Asteleheneko ezohiko udabatzar-rean hiltegi berria ere izan zuten berbagai. Hain zuzen ere, berta-rako sarbidea eraikitzeke lurren desjabetza egin ahal izateko bes-te pausu bat onartu zuten. Onda-sun eta eskubideen erlazioa eta okupazio aurreko akten jasotze-datak onartu zituzten, aho batez.

Aktibitate-lizentzia "heltzeaz" dagoela aurreratu du Azpitarte alkateak

Eremu horretan lau lur-jabe bereizten dira: bat eremu publi-koa da, beste bi partikularrekin akordioa lortu du udalak, eta azke-nekoa falta da. Kontua da lur-jabe honegaz ezin izan dela kontakta-tu, eta honi begira ipini dute pro-zedura martxan. Hasieran uste baino astiroa-go doa gaia. Jabier Azpitarte alka-te eta Erraldeko presidenteak azal-du digunez, 2012rako ere gaitza izango da prest egotea, "eraikitze-ko 24 hile" beharko dira-eta. Akti-bitate-lizentzia "heltzeaz" dela aurreratu du Azpitartek. ■ M.O.

IZURTZA

Ekonomia eta gizarte gaiak lantzeko batzarra, bihar

Aurreko herri batzar bietan bali-a-tu duten metodologia baliatuta, -parte-hartzaileak taldetan bana-tu eta tailerretan jardutera gon-bidatuz- landuko dituzte bihar, 10:00etan hasita, gai sozio-eko-nomikoak herriko ordenamen-duaren berridazketaren proze-suaren barruko batzarrean.

MAÑARIA

Sukaldeko sekretuak konpartitzeko ikastaroa

Azaroaren 27an eta abenduaren 4an, 11n eta 18an Leixarrixako txokoan batuko dira lehenengoz antolatuko duten postre ikastaroan parte hartzeko izena eman duten mañariar sukaldariak. Lau zapa-tutan, beraz, 10:00etatik 12:00eta-ra bitartean elkartuko dira azken-buruko ikastaroa eman eta

Hirigintza ereduak eta ingu-rumenak gizarteagaz daukan lotu-rari buruz jardun zuten joan zen astekobatzarrean euren iritzia ematera batu ziren 20 izurtzarrek. Ikasturte honetan ekin dioten parte-hartze prozesuan oinarritu-ta, datozen urteetan egingo duten herriko ordenamenduen disei-nu berria osatzeko, herritarren parte-hartzeak daukan garrantzia azpimarratu du gobernu taldeak: bizi den inguruan aldatu edo hobetu beharrekoak zein mantendu beharrekoak ondoen herritarrek eurek ezagutzen dituztela nabar-mendu du udal gobernuak. ■ I.E.

jasoko duten herritarrak. Horixe da aurtun lehenengoz martxan ipini duten ikastaroagaz bultzatu gura dutena: hartzaile bakarrik izan beharrean, herritarrak euren jakin-tza konpartitu dezatela herriki-deekin. Besteak beste, tiramisua, limoi moussea, melokotoizko yogurra, goxua, piña eta limoi pas-telak, gatzatu tarta, Santiago tar-ta, quesada, txokolate trufak eta souffléa egiten ikasiko dute. ■ I.E.

Lau zapatutan -bihar eta abenduaren 4an, 11n eta 18an- egingo dituzte saioak

Euskaditik Europara
EHU-tik Lanera

50 BEKA

Herrialdea aukeratu

Helmugak

1 ALEMANIA 2 FRANTZIA 3 PORTUGAL
4 AUSTRIA 5 ITALIA 6 ERRESUMA BATUA

PRAKTIKAK EUROPIAN. EPEZ PROIEKTUOKO V DEIALDIA

Hartu zure txartola

EUS EUR EPEZ BEKAK

Norentzat:
UPV/EHUko titulatu berriak diren entzat. Beharrezkoa da 30 urte baino gazteagoa izatea eta Bizkaian erroldatua egotea.

Beka-kopurua: 50

Herrialdeak: Alemania, Austria, Erresuma Batua, Frantzia, Italia eta Portugal

Eskaera-orriak eskuratzeko lekuak:
Bizkaiko Campuseko Enplegu gunean edo www.ehu.es/enplegugunea web gunean

Bizkaiko Behargintza
orientazioa: mdurango@bizkaia.org if. 94 601 36 79 / 94 601 36 81

Getxolan
www.getxo.net/getxolan if. 94 466 01 40

Izena emateko epea: 2010eko azaroaren 27tik abenduaren 19a arte

BERBAZ >

**Sidahmed
Mohamed Ahmed•**

■ Sahararra da

■ 22 urte



“Espainiak zor historikoa dauka saharar herriarekin”

Aaiunera begira jarri gara Sidahmed Ahmed Zaldibarren bizi den 22 urteko sahararragaz

Tindufeko kanpamenduetan hazi da Sidahmed. Saharako lurralde okupatua ezagutzen ez duen arren, bere herria bertara noiz bueltatuko zain dago. Itxaronaldia hamarkada askoan luzatu da, baina. Aaiunen bizi duten egoeraren aurrean, gerrarako oihuak geroago eta ozenagoak direla azaldu digu Zaldibarren bizi den sahararrak.

Osasun arazoengatik etorri zinen Euskal Herrira.

Oporrak bakean kanpainaren barruan uda pasatzera etorri nintzen, 10 urteaz. Medikuarengana joan eta arnasketa arazoak neuzkala konturatu ziren. Berrizko familia bategaz gelditu nintzen, hiru urtez, osatu arte. Ondoren, kanpamenduetara itzuli nintzen.

Aaiunetik zer albiste heltzen zaizu?

Sahara okupatuan ez dut familiarik, baina lagunak esaten dute-

nez, egoera oso nahasia da. Arratsaldeko seirak arte ezin zaitezke etxetik irten, bestela kartzelara eroaten zaituzte. Jendeak bere eskubideak aldarrikatzea gura zuen, baina poliziak ez du gura.

Kazetarienganako jarrerari zer deritzozu?

Kazetariei ez diete sartzen uzten. Marokori une honetan galdetzen badiozu, dena ondo dagoela esango dute. Ezer ez badabil pasatzen, utzi diezaietela kazetariei bertan sartzen, zer gertatzen ari den ikusteko. Kazetarien babesa daukagu gertatzen dabilena kontatzeko.

Gerrara joateko arriskua dagoe-la diote batzuek.

Egoera laister konpontzea itxaroten dut. Sahararren pazientziak bere muga daukalako. Jendeak armak hartu ditzake. Inork ez du egoera horretara heltzerik gura, baina ez badago beste erremediorik... Sahara gurea da; ez Marokorena. Herrialde guztiek badakite gurea dela. Bakea gura dugu, ez gerrarik. Gure eskubi-

deak ez dituzte errespetatzen. Kanpamenduetan dauden gazteek presidenteari gerra gura dutela erreklamatzeko diote. Jendea hiltzen dabil Aaiunen, zentzurik barik.

Nazioarteak zer jarrera erakusten duela deritzozu?

Marokok bere helburuak dauzka. Espainiak, Frantziak, AEBk eta Europar Batasunak babesten dute. Gu eta Aljeria bakar-bakarririk gaude.

Espainiakogobernuaren jarreraz zer iritzi daukazu?

Espainiako gobernuak ez dabil ezer egiten. Egoera lasaitu guran dabil, eta ez deritzot ondo. Espainia auziaren lehenengo eta azken erruduna da. Saharara negozioak egitera sartu zen, eta Maroko eta Mauritaniaren artean saldu zuten. Saharari asko zor dio. Marokok orain boterea daukanez, ez du hortik irten gura. Petrolioa, arrantza eta denetarik dauka. Espainiak asko egin behar du sahararrak euren lurrera itzultzeko. Espainiak ezkutatzeko

asko du gai honetan. Gure itxaropena da egunen batean ulertzea Sahara ez dela Marokorentzat, gurea dela eta azken odol tanta galdu arte borrokatuko dugula gure helburuaren alde: gure lurra.

Marokozertan dabilela deritzozu?

Maroko ahalegintzen dabil inor ez dadin bere jokoan sartu. Marokor herria saharar herriagaz batu gura dutela diote. Nik uste dut gure ez dugula Marokogaz batu gura. Guk gure herrialdea gura dugu. Euren badaukate euren herrialdea. Lehenago edo geroago gure herria berreskuratuko dugu. Batzarrak egiten dituzten bakoitzean, ez gara akordio batera heltzen. Sahara ez da marokor. Hori ez du inork aldatuko.

Lurralde okupatuan izan zara inoiz?

Ez, Tindufeko kanpamenduetan, Aljerian bizi izan naiz. Pobrezia handia dago eta egoera konplikatua da. Ur edangarri gutxi dago. Itxaroten gaude, egunen batean gure herrira itzultzeko. ■ J. G.

“Ezkutatzeorik ez badaukate, utzi diezaietela kazetariei hara joaten”

“Sahara ez da Marokorena, eta azken odol tanta galdu arte borrokatuko dugu”

Odi-Bakarren arrakasta ikusita Sukia Errotaritxuena berria aurkezten du

*Zu ere bizi
zaitezke hemen*

**Eman ezazu
izena**



Aurki etxebizitza eta garajeen eraikuntza

946 46 20 41 www.sukia.com
www.solvias.es

 **sukia**
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



IRITZIA >

Gutunak @

Astronomia, Elorrioko eliza eta Calahorrako gotzaina XV. mendean!

Datorren abenduaren 8an, Elorrioko Sortzez Garbia elizaren 551. urteurrena beteko da. Kanpoko horma batean dagoen harrizko idazki batean irakurri ahal denez, 1459ko abenduaren 8an, hau da, urte hartako Sortzez Garbiaren egunean, elizaren eraikuntza hasi zuten. Eliza honen kokapena agian ez zen edozelan aukeratu (ikus Anboto, 370 zkia, 8.or.) baina lanak hasteko hautatutako eguna ere ez, beharbada.

Zeruan bezala lurrean ere

XV. mendean astronomia eta astrologia gauza bera zen, eta oraindik mende bat falta zen Kepler eta Galileok astronomiaren lehen oinarri zientifikoak ezarri arte. Aita Santuek, erregeek eta gizon boteretsuek astrologoak izaten zituzten inguruan eta izarren kokapena zeruan, beste elementu bat izaten zen –batzuetan ezinbestekoa– beraien erabakiak hartzeko orduan.

Elorrioko elizaren lehenengo harria jarri zenean, zeruko astroak zelari zeuden ikusita, beharbada, egun hori txiripaz ez zela aukeratu susmatu daiteke (1). Egun horretan, konjuntzio arraroa eta bitxia eman zen: lau planeta (Venus, Marte, Saturno, Merkurio) eta eguzkia irten (120°) eta gorde (240°) ziren horizonteko leku beretik. Gainera, Venus, Serpentarius (suge eroalea) izeneko konstelazioaren gainean zegoen.

Venus planetari “goizeko izarra” esaten zaio eta, aldi berean, Elizak letanietan Ama Birjinari ematen dion titulu bat da. Beraz, Venus “zapaltzen” aribada Serpentarius konstelazioa, Ama Birjinak sugeaz elan zapaltzen duen islatzen ari dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, irudi askotan Ama Birjina horrela agertzen da. Beraz, ematen du egun horretan Sortzez Garbiaren adokaziopean eliza bat hasteak bere esanahi teologikoa bazuela. Beharbada, eraikitzaileek, “zeruan bezala lurrean ere” esaldiari zentzu berezia eman nahi izan zioten eta horregatik, elizako obrak hasteko egun hori aukeratu zuten.

Bestalde, egun horretan suertatu zen lau planeta eta eguzkiaren sinkronismo horren esanahia, ezin da hain errez ulertu.

XV. mendeko testuingurua

XV. mendean Bizkaia banderizoen arteko gerrak jota zegoen eta anarkia, pobrezia eta liskarrak nagusi ziren. Elizaren egoerari dagokionez, nominalki behintzat, Durangaldea Calahorrako elizbarrutian zegoen. Bainakronikek diotenez, Calahorrako apezpikuek Bizkaiko abadeei ezin izaten zieten beraien agintea ezarri eta gotzainak berak Bizkaia sartzea ere galazota zeukan.

Garai hartan eguzkiak lurraren inguruan biratzen zuela pentsatzen zuten. Gertakari astronomikoak auresateko zegoen modu bakarra, behaketa historikoak erabiltzea zen. Serie luzeak edukita, posible zen iraganeko zikloak susmatzea eta gero, hurrengo zikloa noiz tokatzen zen asmatzea.

Elorrioko elizaren lehenengo harria jarri zeneko moduko konjuntzioa auresateko, azpiegitura egoki bat (erregistro historikoak, matematikariak etab) ezinbestekoa zen. Ez dirudi XV. mendeko Bizkaia lekurik egokiena zenik horrelako azpiegitura bat kokatzeko. Baina, beharbada, Calahorrako gotzainak bazeukan kalkuluak egiteko beharrezkoa zen azpiegitura hori.

Calahorrako gotzaina

Elorrioko eliza hasi zenean Calahorrako gotzaina Pedro Gonzalez de Mendoza zen. Sasoi hartan, 31 urte zituen. Zientzia eta letra gizon jantzia, kardenal izatera heldu zen. Elizako gizon honen armariak ‘Ave Maria gratia plena’ leloa zekarren.

Bere senideak, mendozatarak, oso boteretsuak ziren, eta familiaren ardureierantzuteko Enrique IV.aren gortean denboraldi luzeak ematen zituen. Beraz, Elorrioko eliza hasi zenean, Mendozak gorteko eta aldi berean, Eliza Katolikoaren adituen ezagupide astronomikoak eskuragarri zeuzkan.

Bere armarriko lelo horrekin eta bere esku zituen baliabideekin, ez


zen harriztekoa izango Mendozak eliza bat bultzatzea Ama Birjinaren adokaziopean eta bereziki, konjuntzio astronomiko hori ematen zen egun horretan. Again, Calahorrako gotzainaren eskua Bizkaian luzeagoa zen pentsatzen zena baino.

Obrak hasi bai, baina lanekin jarraitzeko oztopo ugari sortu ziren eta, azkenik, egoera auzi batera heldu zen.

1493an, hiltzeko 14 hilabete baino ez zitzaiola falta, eta aspaldi Calahorrako apezpikutza utzita, Mendoza ohean zegoen. Gaixotasun larri batek jota egonda ere, auzi horretan esku hartu zuen eta berari esker, obrek behin betiko bultzakada jaso zuten.

Agian, bere zahartzaroko erabaki horrekin, Mendozak 34 urte lehenago hasitakoari, nahi izan zion amaiera eman. Horrela bazen, Elorrioko eliza noiz (eta agian non ere bai) eraiki erabakitzean, pentsatu dezakegotzain honek teologia astronomiaren hizkuntzan ere adierazi ahal zela sinisten zuela..

(1) Starcalc izeneko software librea <http://homes.relex.ru/~zalex/> erabili dut.



Gabriel Ibarra - Elorrio

Iepa Eñaut! Zorionak!

Zelan gabiz ba? Gu hemintxe jo ta fuego, lan da lan, Gazte Asanbladien 11. urteurrena aurrera atarateko. Gelditu be ez gara ein azken egunetan; estenarixue, karpie, argixek, edarixek, bazkarixe, erromerixakuei deitu... Hainbat zeregin egon die. Baina bueno, zukez dakizun zer esango dotsugu ba! Hamaikaxo bat jai eta ekitaldi antolatutekue zara zu be. Beste urte bat pasau da gaztiek kale gorrixen gauzenetik, ta baitte zu gure artien ez zauzenetik. Urteurrena Gazte Asanbladan lanien ibiltten garen danon egune da, ta ospatu ein biher dogu! Baina zuk zelebrazino bikotxa dekozule akorduen dekogu. Zorixonak eta mosu handi bat, danon partez! (Aitziberri be zorixonak). Ikusten dozun moduen lanien jarraitzen dogu oztopo, atxiloketa, tortura, espetxeratze eta injustizixa guztien gainetik.

Gizarte hobiau baten alde lan eittiegaittik eruen zindduezen, ta zugaz batera Ibai Esteibarlanda “Purutxo” be bai. Zu, eta beste asko, kartzelako bizi baldintza gogorretara bizitzera derrigortu zaittue. Euren artien aipatu barik ezin itzi Aitziber, Gari, Gorka eta Alaitz. Aupada handi bat zuei be! 700dik gora doie Euskal Herriko ohe hutsen kopurue. Espetxe politika injustu bategaittik aldendu zindduezen, inkomunikazino garaiko tortura salaketak ugari diela. Esan barik ezin dogu itzi azken aldiko atxiloketagehixenak gaztien kontrakuek izen diela. Ta dana gazte eta errebelde izetiarren!

Badakigu zuen egoerie gogorra dana. Baina horren aurrien ez zarie bildurtzen, kartzeletan einddeko borrokaldixek dekoguz adierazgarri. Senide eta lagunuen egoerie be ez da gozue; baina ehundeka kilometroko bidai luziek, katxeuek, etab. ez die izeten oztopo eurentzat be.

Gazte Asanbladien egoerie belatzada, bainaguk be, oztopuek oztopo, aurrera ingo dogu; autogestinu eta okupazinue trenza lez ebalitte. Sakabanaketa politikak eraginnde, gure oihuek ez dozuez argi entzuten. Baina lasai, inoz baino fuertiau esango dogu! Eta hemendik aurreranzko bidien be presuek etxeratzeko oihue zabalduko dogu, gu be zuekaz gauzelako!

Beste barik: euskal presoak Euskal Herrira! Aupa Eñaut!

Ixorretako Gazte Asanbladie

Sei hankako mahaiaJuan José Gastañazatorre
PP**Azaroaren 25a**

Azken aste osoan zehar hainbat ekitaldi burutu ditugu Durango-ko Udalekook azaroaren 25aren inguruan, genero biolentziaren aurkako borrokari eta kontzientziazioari eskainiriko egunaren inguruan.

Gure taldearen iritziz, gaitz honi aurre hartu eta kontra egiteko intentzioa duen edozein ekimen guztiz positiboa da. Udalbatzarrek onartutako adierazpena gure gizarteko talderik gazteena-ri zuzenduta dago, eta zaurgarri- nari ere bai, emakume gazteak. Beharrezkoa da euren senideen- gandik, hezkuntza zentroetatik, ingurunesozialetik... euren autoes- timua eta duintasun pertsonala- mindu dezakeen inolako jarrerari- onartu ez dezaten helaraztea.

PPren iritziz, gaitz honi aurre hartu eta kontra egiteko intentzioa duen edozein ekimen guztiz positiboa da

Hala ere, eta adierazpeneko mezuekin bat eginda, nire irit- ziz berebiziko garrantzia dauka norabide horretan zuzenduriko gizonezko gazteen hezkuntzari erreferentzia egiteak, mutilen he- zitaileen garrantziari. Oso gazte- txotatik ezinbestekoa da genero berdintasun baliotan hezitzea, estereotiporik gabe, goitik behe- rako gizonak izan daitezen, bes- tesexuarekiko harremanetan hel- buru nagusi bestearekiko erres- petua izan dezaten, dena delako harreman pertsonaletan.

Nire iritziz, berebiziko garrantzia dauka gizonezko gazteen hezkuntzari erreferentzia egiteak

Lerro hauetan gogoeta txiki bat egin nahi izan dut, arazo hau eta bere konponbidea urte osoan zehar buruan izan behar ditugu- la uste izanik.

* Erredakzioan itzulia



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko azaroaren 26a - 9. urtea - 396 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretzi Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

ANTZERKIA > EMANALDIAK

Belaunaldi baten erretratu gordina, bizia eta zintzoa

Zornotza Aretoan eman zuten atzo **Errautsak**. Gaur, 22:00etan, Elorrioko Arriolan eskainiko dute, eta bihar, 20:00etan, Durangoko San Agustinen. Martitzenean Durangoko kulturgunean egin zieten Durangaldeko euskaldun kultura zale guztiei antzezlanak ikustera joateko gonbita sortzaileek

Antzezlanean Zigor gor-puzten duen Ander Lipus aktore markinarra, Aitziber Irigoras Durangoko alkatea eta *Errautsak* laneko elkarrizketak idazteaz arduratu diren Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolari durangarrek egin zuten martitzenean asteburu honetako emanaldietarako gonbita.


“Gauza ederra da mugak hautsi eta Iparraldeko talde batek jardutea”

Antzezlanaren gaineko azalpenak eman zituzten agerraldian, Ander Lipusek nabarmendu zuenez, “berbaz azaldu barik, onena jendeak antzezlanak bertatik bertara sentitu eta ikustea” den arren. Azaroan zehar egin dituzten 14 emanaldietako azken hirurak dira Durangaldekoak; datorren urteko otsailetik aurrera Euskal Herriko antzoki askotan izango dira.

Hegoaldeko Artedrama eta Dejabu taldeen eta Iparraldeko Le Petit Théâtre de Pain taldeko sortzaileen elkarlanetik sortutakoa da *Errautsak*. Lipus Artedramako kide eta aktoreak nabarmendu zuen, “gauza ederra da mugak hautsi, Iparraldeko talde batek hartu-emanetan ipini eta bere osotasunean euskarazkoa den proiektu bat martxan jartzea”.

Aurretik, Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarrituta egin zuten *Ahulki hutsa*, elkarlaneko lehenengo proiektua. Ximun Fuchs-en ideia batetik tiraka sortutakoa da zelanbait “proiektu handiagoa” den *Errautsak*. Hasierako ideia, antzerki obra kalean ematea zela kontatu du Lipusek, baina sorkuntza prozesuak aurrera egin ahala pentsatu zutela *Errautsak* antzokiratzera.

“Aitzakia dramatikoak, aspal-diko lagun bat hil egin dela da”, Lipusen berbetan: elkar ikusi barik denbora luzeaz eramaten seilagunak errausketa ekitaldian elkartuko dira berriro, eta ohiko errausketa ekitaldi baten ordeztu, “jai basati” bat ospatzea erabakiko dute.



Hainbat euskalki baliatzen dituzte antzezlaneko sei pertsonaiek

Arketipo muturrekoak

Antzezlanaren sortzeko prozesuaren hasieran batu ziren sei aktoreek testua gehiago lantzeko beharra nabaritu zuten, eta “orduan jo genuen Igor eta Unairengana”, azaldu zuen Lipusek. “Eurek indartu zituzten pertsonaiak”, Lipusen berbetan. Obrako pertsonaien arketipoak oso muturrekoak direla aurreratu dute aurkezpenean: “Kaiet, hipotekatua, aita, bizitzaren erritmoari eusteko pilulak hartzen dituen; Zigor, analfabeto sentimental, tripa daukana, antieuskalduna; Erramun, beti herrian geratu dena; Eider, neska euskaldun eredugarria; Pili, taldeko lela, drogak pasatzen dituen; Fermin, beti bidaiatzen dabilen laguna; eta Hodei, hil den eta beti gazte izango den neska”.

Aktoreen jatorriaren arabera, baxenafarrera, lapurtera, nafarrera, bizkaiera, gipuzkera eta euskara batua egin dute *Errautsak* laneko pertsonaiek berba, eta “freskotasan eta indar berezia ematen dio horrek antzezlanari”.

“Ikasbide eta plazera” izan ei da bertsotan bakarka aritzera ohi-tuta egonda “talde lanean” jardutea, Igor Elortzak aurkezpenean nabarmendu zuenez. “Emaitza interesgarriak irten du, gure belaunaldiko euskaldun batzuen erretratua egiten da, eta gai asko zeharkatzen dira: sexua, politika, drogak, dirua, espiritualitatea...”

“Gure belaunaldiko euskaldun askoren erretratua da antzezlanak”

“Umorea, labana bat legezt zaurgarria izan daitekeelako, baina ukendu ere izan daitekeelako”, antzezlanak “gordina eta zintzoa” dela azaldu dute sortzaileek. Ohol-tzako sei pertsonaien izaeraren parterren batek bestalde, denok sentituko garela identifikatuak ere aurreratu zuten. ■ I.E.

> Bideoa: www.anboto.org

“Umorez landu dugu, baina obra serioa da”

70eko hamarkadan jaiotako zazpi lagun orainaldiko eta iraganeko ezinegon, poz, bizio eta ametsen isla da gaur Elorrion eta bihar Durangon ikusgai izango den *Errautsak*; baita ere, Ander Lipus aktorearen berbetan, “amesten genituenak zer bilakatu diren” gogoeta egiteko gonbita.

Erakutsi dutenetan ikusleen barre algarak eragin dituen arren, Unai Iturriagak azpimarratu gura izan zuenez, *Errautsak* “desmadre baten bitartez kontatzen den istorioa ez da gauza fribolo bat, gauza oso serioa da: umorez landu dugu, baina obran kontatzen dena oso serioa da”.

Munduari begiratzeko modu bat dela antzezlanak aurkezten duena ere gehitu du Iturriagak

aurkezpenean: “70eko hamarkadan jaiotakoak diren aktoreen, zein idazketan parte hartu dugunon” begietatik: “Begiratu autokritiko bat egin diogu geure buruari eta geure garaiari”.

Emanaldietan jendeak zenbat barre egiten duen ikusita harrituta daudela aitortu du aurkezpenean Lipusek: “Antzezlanean planteatzen duguna sakonean negar egiteko bada ere, antzerkiak beste dimentsio bat sortzen du”, eta ikusleak sarritan barreagaz erantzuten du.

Antzezlanak Luhuson estreinatu zutenetik antzerkizale euskaldunek egin dieten harreragaz oso pozik daudela azpimarratu dute sortzaileek, eta denok gonbidatu *Errautsak* ikustera.

LEHIAKETA>

Kopla jarrien
lehiaketa antolatu
du Gogaikarrik

Gaztetxoan (14 urtera artekoak), gazteen (15-18 urtekoak), eta helduen sailak dituen (1992 aurretik jaiotakoena) Koipelustre kopla jarri txapelketa antolatu du Abadiñoko Gogaikarri Bertso Eskolak. Gaztetxoek koplak osatu ditzaten 'Zure herriko jaiak dira, goizean jaiki eta kalera irten zara' gaia eman dute antolatzailerik, eta gai librean osatuko dituzte gazteek eta helduek euren koplak.

Lanak urtarrilaren 10a baino lehenago, Zeletabe kaleko 10. zenbakiko bertso eskolaren egoitzara edo gogaikarri@gmail.com helbidera bidali beharko dituzte parte-hartzaileek.

Gaztetxoan sailean irabazle hautatzen dituzten liburuk sortak, gazteek 150 (lehenengoak) eta 100 (bigarrenak) eta helduek 300 eta 200 euro izango dituzte sari. Abadiñarrik onenak, bestalde, bilagunentzako afaria irabaziko du, eta urtarrilaren 28ko bertso afarian banatuko dituzte sariok. Informazio gehiagorako: www.blogak.com/gogaikarri.

MUSIKA> EMANALDIK

Army Arma eta Galsene Warriorz
gaur, eta Durang(h)ost eguenean

Egitarau oparoa eskainiko du Plateruenak datozen asteetan, eskualdeko taldeekin hasita



Gernika, Zornotza eta Durangoko musikariek osatzen duten Army Arma, eta Senegal eta Durangoko lagunak batzen dituen Galsene Warriorz taldeen kontzertua izango da gaur, 22:00etatik aurre-

Durangaldeko musikarien hiru emanaldi, gaur eta abenduaren 2an

ra, Durangoko Plateruenean. Rock, funky, metal, jazz, pop, zein rap ukitua duten kantak egiten dituen taldea da Army Arma; 2006an sortu eta urte bira, Berrizko Hiltegixe gaztetxeko Aldapa musika lehiaketa irabazi zuena. Epaimahaiak irabazle izendatu zituen, eta Berrizko Lorentzo Records estudioan euren kantak grabatzea jaso zuten saritzat.

Hip-haf-a, hip-hopak sarritan zabaltzen duen mezu hutsaletik aldendutakoa, "errealitate gordinari buruzko letrak" kantatzen dituzten Galsene Warriorz taldeko Dougoutigui, Hamds, B.A.B eta Itsuak zabalduko dute gaurko Plateruenean emanaldia.

Datorren eguenean ere, abenduaren 2an, eskualdeko musikariak izango dira Plateruena kafe antzokiko oholtzan protagonista: Durang(h)ost *jam session* saioaren seigarren edizioan batu-ko dira, 21:00etatik aurrera. ■ I.E.

GEURE
DURANGALDEA

Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

Bulimia egunak

Orrazdun txapatxolila eskaini zidaten lehengo eguenean. Letratikizikusi daiteke bidezko aldarrikapena egiteko nazioarteko egunaren kariatara atera dutela. Hedabide digital eta paperezko begirada bat eman ondoren ohartu nintzen; beste bat, neure artean. Bat-batean, aspaldian Felicek horrelako egunei buruz egindako gogoeta etorri zait burura. Esaten zuen, kolore bateko edo beste-ko egun hutsalak baino ez dituela ikusten egutegian markaturik. Begitantzen zitzaion, egungo gizartean gero eta zabalduago dagoela bai bidegabekeriak salatzeak bai kausa edo zaletasunak aldarrikatzeko datak seinalatu eta ospatzeko ohitura. Izan ere, gero eta gehiago dira gorritz, urdinez, berdez, lilaz... nabarmen-urikoak. Neurri batean gizarte gai-koaren adierazgarri dela uste zuen Felicek. Bulimia egunak esaten zien; barruko bulkada kontrolaezinak eragiten duela, eta ezintasunaren adierazgarri dela. Eta urrunera begira, beldur zen ez ote garen ohituko, markaturiko egunetan itzelezko betekadak hartu ostean, baraualdi amaiezinak hartzera. Hark, egunik gabeko egunak zituen gogoko.

Ez da esfortzu handiegirik behar atzera-aurrera egin eta konturatze urtean zenbat egun koloreztatu ditugun: biolentzia, euskara, konstituzioa, aberria, langileak, gosea, biktimak, minbizia, iraunkortasuna, txikiteroak, tabakoa... batzukaipatzearen. Zerrendaluzea egin genezake; eta santutegia sartuko bagenu, gureak egin du!

Poztekoa da atzokoa aldarrikatze eguna bakarrik ezizatea, gure eskualdeko herrietan egitarau mamitsuak prestatu baitituzte. Hala ere, asebetetzeko tentaziotik aldentuta eta Feliceren gogoeta aintzat hartuta, bete-betuekin barik, gutxiago jan eta digestioa hobeto egiten ikasi eta irakatsiko bagenu...

Gaurzortzi Euskararen Eguna ospatuko da; baraualdian pentsatzen hasi naiz.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA> DURANGO

kronika

Markel Onaindia

Onintza Enbeitak hartu du
finalerako lehenengo trena

800 lagunetik gora batu ziren domekan Durangoko Landakon, Bizkai-ko Txapelketako lehenengo finalaurrekoa jarraitzeko. Onintza Enbeitak eskuratu zuen lehen postua, eta ondorioz, finalerako sailkapen zuzena ere bai. 545 puntu jaso zituen, 8ko txikian eta kartzelan nabarmenduz.

Gorka Lazkano berriztarrak saio txukuna egin zuen ofiziotan; 8ko nagusian bera izan zen onena. Puntuari erantzuten eta kartzelako gaian gehiago egin zezakeen, baina orokorrean sentsazio ona eman zuen. Plazan legez jardun zuen, segurtasuna transmitituz. Bere lanak, baina, ez du segurutik saririk izango; gaitz izango du finalera

pasatzea. Domekako bigarren sailkatuaren eta bere artean 45 puntu-ko aldea dago -lartxo, akaso-, eta tarte horretan hainbat bertsolari sartu daitezke hurrengo bi finalerdietan.

Lazkanok saio txukuna egin zuen ofiziotan; 8ko nagusian onena izan zen

Etzi Zornotzara helduko da txapelketa; bertan Durangaldeko bertsolari bi saiatuko dira BECera-ko pasea lortzen: Miren Amuriza eta Eneko Abasolo "Abarkas". Ea euren lanak saria jasotzen duen.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 26 22:00etan
ARMY-ARMA +
GALSENE WARRIORZ
KONTZERTUA. Sarrera doan.

AZAROAK 27 22:00etan
ZEA MAYS
'ERA' diskoaren aurkezpena
KONTZERTUA. Sarrera + KD: 10 euro.

AZAROAK 28 17:30ean
BASO SORGINDUA
PATATA TROPIKALA TALDEA
UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ERRAUTSAK

Le petit théâtre de Pain & Artedrama

Azaroak 27 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

11.04 661 07 76 Artekale, 14 Durango

45. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen



Kirola, natura eta abentura ziurtatuta

Bideografik ekoiztetxearen eskutik

2008an izan ziren lehenengoz Durangoko Azokan. Kirola eta abentura gustuko dituzte Bideografiken. Nepalen, Tamur ibaian zehar egindako jaitsierari buruzkoa da euren azkeneko lana, eta datorren astean Azokan erakutsiko dute

Biurte dira Durangoko Azokaren ertz batean ikusi genituela. Telebista pantaila batean, haitzetatik zintzilikatutako lagun pareak ikusteko aukera erakusten ziguten, eta antzeko irudiak zituen egutegia ere saltzen zuten. *Psicobloc: ur sakonetako bakardadea* ez zen euren lehenengo lana izan, baina Durangoko Azokara lan horregaz etorri eta ezagunagoak egin ziren.

Bideografik ikus-entzunezko produkzio-etxe txikia da. Durangon eratua, elkarren artean lan egin eta ezagunak ziren profesional taldea batuta sortu zena. 2007. urteko kontuak dira. Ordura arte, beste enpresa batzuentzako lan egiten zuten. Baina, euren gustukoak ziren proiektuak eta euren ideiak garatzeko beharrianetik ekin zioten bideari David Maetzuk, Xabier Zabalak, Carlos Iglesiasek eta Eukeni Arriortuak.

Momentukoa, sarri, plano perfektuaren bila doan kameraren gainetik dago

Denetariko ikus-entzunezkoak egin badituzte ere, abentura eta natura gaiak uztartzen dituzten dokumentaletan jarri dute jomuga, eta telebistarako ere *KTX* kirol eta aisialdi saioaren ekoizleak dira. Laugarren denboraldirako proiektuak eskuartearen dituzte oraintxe.

Erraza ez da, kirolariaren eta irudiak jaso behar dituenaren asmoak, gogo eta lana uztartzea. Errepikapenatarako leku gutxi izaten da. Eta momentukoa, sarri, plano perfektuaren bila doan kameraren gainetik dago. Horrelakoetara ohitu dira, dagoeneko, Bideografikekoak.

Dena dela, *Psicobloc: ur sakonetako bakardadea* dokumentala bestelakoa izan zen. Patxi Usobiaga eta Irati Anda eskalatzailleen



ia bi asteko tartea izan zuten gura adina plano grabatzeko. Dokumental horri esker, Lekeitioko bideo-bileran, Bartzelonako Visual Sound jaialdian eta Argentinako Ushuaiako mendi-zinemako nazioarteko jaialdian parte hartu eta irabazteko aukera izan dute.

Durangokoari begira

Abentura eta natura inguruko gaietan espezializatu direla nabarmentzen dute. Baina norbere enpresa aurrera ateratzeko abenturan, ez dituzte albo batera utzi enkarguzko lanak. Horietako batzuek Durango herriagaz lotura estua daukate, gainera.

Ekoiztetxea sortu orduko 1937ko martxoaren 31n Durangoko bonbardaketari buruzko dokumentala egin zuten. Gazteen ikuspuntutik gertakariak eragindako oinazea eta utzitako ondorioak azaltzen zituen *Martxoak 31*

gogoan dokumentalak. 2009an, berriz, *D-ur-ango Erreka baten historia* ikus-entzunezkoari ekin zioten. Mañaria errekarri jarraituz iraganeko eta etorkizuneko Durango

herriaren lekukotza jaso zuten. Aurtun, berriz, Tabirako saskibaloitaldearen 50. urteurrenerako bideoa ere Bideografikekoek grabatu dute.

Telebistako 'KTX' kirol eta aisialdi saioaren ekoizleak dira

Tamur: Kangchenjungako harribitxia

Durangoko Azokan aurkeztuko duten dokumentalaren izenburua da. Orain urtebete egin zuten Nepalera bidaiari, tartean Txus Ruiz de Erentxun durangarra ere bazegoela. Tamur ibaia kayak bidez jaisteaz



kirolarien helburua. Hori aitzakia hartuta, herri baten kultura eta bizimodua kontatzea ekoizleena.

Diotenez, Nepal barrualdetik bidaiatzea abentura bat bizitzea baino gehiago da: denboraren makinaren bitartez, Asia osoko lekuri eder eta benetako koeneta batean murgiltzea da. Lau eguneko ibilaldia haranaren eta Himalayako mendien artean jaitsieraren hasieraraino iristeko, Dooban herriraino. Bertan ekin zioten sei eguneko jaitsierari, Tamur ibaian behera, Kangchenjungako harribitxian. Ibaia biziaren ikurra da Nepal.

Abenduaren 4an, Azokako aretoan izango dira euren azken dokumentalaren gora-beherak kontatzen Bideografikekoak. Abenduaren 8an, berriz, San Agustin Kultur Gunean, eguerdiko 12:00etan, ikus-entzunezkoa bera osorik ikusteko aukera egongo da.



Durangoko

Euskal Liburu eta

Disko Azoka

2010eko abenduaren 4tik 8ra

www.durangokoazoka.com
www.gerediaga.com

DANBAKA >

Cowboyak, epika eta taberna giroan gau laburrean

Baja bategaz hasi genuen gaua, Rombos Negro-sekoak ezin izan zuten-eta jo, taldekide guztiak ezin agertu zutelako. Hala, hasierako huts horregaz, gauak hobera besterik ezin zuen egin. Horren erantzule bakar gainerako taldeak izan dira: Doctors Klub, Karpovian Project eta Ez!.



DOCTORS CLUB

Lehenak oholtza hartzen Doctors Klubekoak izan ziren. Cowboy txapela buruan, aretoa berotzeaz gain ikusleei 'lassoa' botatzea ere izan zen Durangalde Country-ko mutikoteen lana. Girotze ahalegina ez zen gutxiestekoa izan, lasto-fardo eta guzti agertu zitzaizkigun-eta Espaloian. Txukun eta gitarra lastanduz hasi ziren, harmonikarekin eta suabe abestuz. Belar lastoa ahoan ala tabakoa mastikatzen gozatu beharreko kontzertua, inondik inora. Danbakari, behintzat, aurtengo ukitu berezia eman diote.

Hasiera lasaitxoari buelta emanez, bateria sartu, 'yee-ha!' pare bat eta hasi zen koadrodun alkandoradunen festa. Agian, makalen ahotsetan jardunik ere, harmonikaren epeltasunak gozatu zuen ahotsean lakartasuna, punkyagoa izan zena countrya baino. Gogotsu eman zioten, halere. Konbentzitu zuten lan txukuna eginez, inor ezustean harrapatu barik baina abesti zein manera dotoreak erakutsita. Pena banjorik ekarri ez zutela. Hori bai, bukaera ederra egin zuten, guztiak fardoetan eserita, txaloein erritmoa eramanez, koadrila giro epelean eta azkenean txapelak botata. Chapeau?... hainbesterako ere ez.



KARPOVIAN PROJECT

Bigarrenik Danbakako ohiko metal anoa baina ohikoan baino berun kopuru txikiagokoa; melodiarren alde eginez, hortaz, rockerago. Hori bai, epikotasun sentimentala ez zuten baztertu; geurean hain ondo funtzionatu ohi duen ukitu hori. Ikuslerik finenak ere hauek ekarri zituzten, eta lorak ere bota zizkieten (metaforikoak).

Patroietatik irteten barik baina estu egon gabe, neurrian instrumentu guztiak eta ahotsa, baina – beti bainaren bat – egur apur bat gehiagok distira eta presentzia emango lieke mutrikuarrei. Ondo prestaturiko emanaldiek ordain ona izan ohi dute Danbakan, eta hauek entsegu-lokal usaina gehi zuzeneko askoren izerdia ekarri zuten jantzetan. Hala ere, zerbaiten gabezia sumatu zen eta zera hori agian ez zuten entseguen lau hormen artean aurkituko, ezta beste barik zuzenekoan transpirazioan. Bila jarraitu behar.



EZ!

Laburra ona bada bi aldiz ona, eta saioa behintzat motza izan zen. Ez! Oñatitik, gitarra zorrotz, bateria temati eta tabernako ahotsarekin. Kaleko betiko soinuak, beharbada, espero baino tonu lasaitxoagoan.

Gaueko presentziaren saria hauena izan zen, baina, paperean erabat murgildutako erdi abeslari, erdi antzezlearekin. Dantzarako aukera eman zuten, alaitasun puntua ere.

Dibertsioa ekarri zuten hauek osteratzean piper eta gatz gutxiak izango litzatekeen saiora. Txukunen eta garbien ez zuten jo, baina bai dibertigarrien. Punk-rocka beti izan ohi da efektiboa eta are gehiago garagardoz ondutako melodiek laguntzen badute. Eurek gustura zeudela esan zuten eta kexatu, behintzat, ez zen inor kexatu. Gerria ederto mugitu zuenik ere egon zen. "Oe oe, lo, lorolo, lo" eta festa egin zuten.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

KIROLAK >

Estebanek sufrituta eta Arratibelek jokatu barik lortu zuten sailkapena

Etzi Cafés Baqué Txapelketako finalak jokatu dituzte Apatan. Finalerdietan Estebanek 22-21 menderatu zuen Aretxabaleta. Arratibelek ez zuen jokatu, Jakak eskuko mina zuelako



Andoni Aretxabaleta markinarrak eta Victor Esteban Ezcarayko pilotariak emozioz betetako finalerdia jokatu zuten.

Domekan, 11:30ean hasi-ta, XXV. Cafés Baqué Pilotari Txapelketako finalak jokatu dituzte Apatan pilotari lekuan. Kadeteetan Iñaki Artolak eta Danel Elezkanok jokatu dute; gazte mailako txapela Victor Estebanen eta Ibai Arratibelen artean dago.

Eguaztenean lurretan jokatutako finalerdietan Victor Estebanen —Aspek fitxatu duen Gorka Estebanen anaia gaztea— eta Andoni Aretxabaletaren arteko lehia izan zen ikusgarriena. Markinar garaia gogor zigortu zuen Esteban atzean,

Gorka Estebanek airez nahastu zuen jokoa, Aretxabaleta mugiaraziz

Kadeteetan Elezkanok eta Artolak indarraren legea ezarri zuten

baina Ezcarayko gazteak airez defentsa handia erakutsi eta aurrean aukera txikiak zuenero abilezia arriskatu zuen. Nork bere jokamoldeagaz tanto eder-rrak eskaini zituzten, eta 20na eta 21na berdindu zuten. Azkenean, pilotalekura batutako zaleek gogotik txalotu zuten bien jarduna.

Gazteen mailako bigarren finalerdia Eric Jakak eta Ibai Arratibelek jokatu behar zuten, baina Jakaren eskuko mina Arratibel zuzenean sailkatu zuen finalerako. Iaz elkarren kontra jokatu zuten kadeetako finala,

eta Arratibelek irabazi zuen. Beraz, Jakak ezin izan zuen errebantxarik hartu.

Kadete mailako lehenengo finalerdian Danel Elezkanok 18-4 irabazi zion Unai Atutxari, historia handirik bako partiduan. Ondoren, askoz partidu lehiatuagoa (18-9) eskaini zuten Iñaki Artolak eta Adur Lasak —Oskar Lasa pilotari ohiaien iloba—. Artola alegiarrek pilotakada latzak jo eta Lasak osabaren sasoi bateko defentsa eta pilotarako kasta erakutsi zituen. Finalean Elezkanok da faborito, baina adi Artolagaz. ■ J.D.

Abadiñoako talde biak orpoz orpo areto futboleko

Areto futboleko lehenengo erregionaleko protagonista nagusiak Abadiñoako talde biak dira orain arte. Abadiñoako Lagun lider dago, eta hiru puntura hurretik jarraitzen dio Abadiñoako Gaztetxiek. Lehenengok ez dute oraindik partidurik galduta, eta bigarrenak bakarra.

Maila bat beherago Gu Lagunak taldeak etxean berdindu eta lidertza galdu du, Sestao Bren mesedetan. Durangoko Sapuberri ere ez du lehenengo bi sailkatuen arrastoa galtzen, eta hirugarren dago. ■ J.D.

Olaburu eta Atxarte bikain trinketean

lurreta eta Abadiñoako eskolek ordezkari asko dituzte Bizkaiko Txapelketako azken txanpan

Buruz buruko Bizkaiko Trinkete Txapelketa azken txanpan sartu da, eta nagusietatik kadeteetarako mailetan Durangaldeko pilotari asko dabilta lehia.

Kadeteetan finalerdia erabakita daude, eta lau pilotaririk hiru lurretako Olaburu eskola-koak dira: Otadui, Bereinkua eta Diez. Lekeitioko Atxabal da laugarrena.

Gazteen eta nagusien bi mailetan bederatzina pilotari

hiru taldetan banatuta lehiatuko dira. Nagusien bigarren mailan Abadiñoako Atxartek bederatzitik lau ordezkari ditu: Aspuru, Arabio, Badiola eta Agirre.

Kadeteetan lautik hiru Olaburukoak dira: Diez, Otadui eta Bereinkua

Galtzagorri, bigarren, Bizkaiko onena xakean

Xakeagaz eta xakearen munduko lagunekin "kontaktu ez galtzeko" helburu bakarragaz lehiatu da Ieray Galtzagorri abadiñoarra Bizkaiko Banakako Xake Txapelketan eta, bere esanetan "ustekabea", txapelketa irabazi du bigarren. Sei jardunalditan hiru partida irabazi eta hiru berdindu ditu.

Alain Prieto abadiñoarra bigarren geratu da. Azken jardunaldira puntu erdiko aldeagaz heldu zen Prieto, baina bere partida galdu eta Galtzagorri berdintzea lortu zuen. Bakoitzaren arerioen puntuen batuketak Galtzagorri eman dio txapelketa. ■ J.D.

Espainiako Kopa irabazi dezake Murgoitiok

Joan zen asteburuan Espainiako Kopako hirugarren lasterketa irabazi zuen Egoitz Murgoitiok ziklo-krosean. Asturiasko Navia herrian jokatutako lasterketan, Ruiz de Larrinaga hirugarren geratu zen. Beraz, Murgoitiok hurrengo lasterketa irabazten badu, Ruiz de Larrinaga bigarren egitera behartuta dago, bestela Hirumeteko txirindulariak irabaziko du txapelketa. Bestalde, 23 urtez azpikoan, Dani Ruizek bigarren amaitu zuen Juarezen atzetik eta oso gaitz du kopa irabaztea.

Asteburuan Belgikako Koksijde-n Munduko Kopako lasterketa korrituko dute. Murgoitiok 25 onenen artean mantendu gura du. ■ J.D.

Pitch&Putt torneoaren bihar DimaGolf-en

Zapatuan, 10:00etatik aurrera, Sagardoaren eta Pernilaren Torneoaren jokatu dute DimaGolf zelaian. Izen-ematea 20 euro da, eta gosaria eta luntxa doakoak dira. Gaur, 19:00etan, amaituko da izen-ematea (info@dimagolf.com).

Stableford modalitatean jokatuko dute txapelketa eta, ohi duten moduan, bakoitzaren *handicap*aren arabera hiru kategoriatan lehiatuko dira parte-hartzaileak. Aurretik DimaGolfeko torneoan parte hartu ez duten golfeko *handicap* oinarri hartuta ezarriko diete Pitch&Putt-ekoa. ■ J.D.

Erasoan eskumuturra berotu behar du Tabirakok

Defentsan finean dabilta, baina erasoan ezin dute asmatu; punteria zehaztu behar dute azken aurreko postutik irten gura badute



Talde osoa jokatzeko prest izango du Alberto Molina entrenatzaileak Juanra de la Cruz

Tabirakok orain arteko zortzi neurketatik bakarra irabazi du eta, ondorioz, azken aurreko dago sailkapenean. Emakumeen taldea hain behean ibiltzearen arrazoia erasoan dago. Alberto Molinaren aginduak artez eta gotor betetzen dituzte defentsan, eta 16 taldeko multzoan punturik gutxien jaso dutenetan zortzigarrenak dira. Erasoan, baina, ezin dute asmatu, eta punturik gutxien sartu duen taldea dira, Obenasa Ursulinasen atzetik.

Sailkapeneko beheko postuetan ibiltzeak ere ez du laguntzen baloia jaso, saskira begiratu eta besoa luzatu behar den momentuan. "Jaurtitzen dugu, baina baloia ez du sartu gura. Konfiantza falta da erasoan huts egitera garamatzana", dio Molina entrenatzaileak.

Hala ere, pozik dago taldearen jarreragaz: "Ahaleginari

dagokionez, taldeari ezin dakioke ezer aurpegiatu; gogor behar egiten dute. Arazoa larria da, bai; baina jarrera falta balitz kezkatuago egongo nintzateke".

A.Molina: "Konfiantza falta da erasoan huts egitea garamatzana"

Aurten orain arte taldean erreferente ziren jokalariek taldea utzi dute, baina Molinak ez du hori aitzakia moduan ipini gura. Talde gaztea dute, baina hor behetik irteteko adina kalitate badutela dio.

Horretarako garaipenak pilatzen hasi behar dute, eta lehenengo aukera biharkoa da,

etxean, Deusto Loiolaren kontra. Gainera, aspaldiko partez jokatu dute etxean. Izan ere, egutegiak eta Landako kiroldegiko bestelako hitzorduek horrela behartuta, lau partiduko jokatu dituzte jarraian etxetik kanpora. Hain zuzen ere, horietako batean lortu zuten orain arteko garaipen bakarra, DPI Cambioren aurka (60-63).

Gizonak ere estu

Gizonen taldea ere larri dabil EBA mailan. Emakumeen antzerak azken aurrekoak dira, garaipen bigaz. Garaipen kopuru berbera dute euren aurretik dauden Zornotza eta Universidad de Burgos taldeek ere.

Asteburuan Fidalgo Vecino hartuko dute etxean. Ez da edozelako arerioa. Orain arte zortzitik zazpi irabazi dituzte eta bigarren daude sailkapenean. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
•Areto futbol entrenatzailea



Etorkizuna dudatan

Datorren denboraldian areto futboleko mailak berrantolatu egingo dituzte eta, aldaketa horien ondorioz, ez dakigu seguru areto futboleko talde askogaz zer gertatuko den.

Gure kirol hau indartu guran, nazional A mailako taldeak murriztea erabaki dute, eta horrela, zazpi talde jaitsi daitezke nazional B mailara. Ondorioz, beheagoko mailak mugiaraziko dituzte eta horrek, kategoria horietako maila eta exigentzia handitzea eragingo du. Bestalde, nazional A mailako taldeak gutxitzeak, maila horretan ari diren taldeei bidaia luzeagoak —Galiziara, esaterako— egin beharra ekarriko die eta, lehian jarraitu gura badute, aurrekontuak nahikotxo handitu beharko dituzte. Neurri horrek Sasikoa Ari eragingo dio, segurutik, aurten, lehenengo taldearen berrantolaketa gauzatu duten honetan, sailkapen on bat lortzeko erronka dutenean aurretik.

Aldaketa horiekin eta gauzatzen dabilzan beste batzuekin, taldeen desagertzea edo igoera zein jaitsiera boluntarioei ezetz esatea eragingo duen panorama aurreikusi daiteke. Gauzak horrela, galdera batzuk datozkit burura: erreforma hauek beharrezkoak dira? Zer beste alternatiba dago? Gertatzen ote da moldaketaren bat ahanzturan?

Nire ustez, areto futboleko gaitzazko ikeragari eta zuzenean eragiten diguten neurri ez gustukoak badira ere, hari mehe baten gainean balantzan dabilen kirola epe ertainera indartzea lortuko dute. Dena dela, denborak erantzunatu dituzte zalantzak.

Durango Ilarduya sasoi onean, galdu arren

Getxo ahaltsuaren kontra galduagatik, Aratz Gallastegi pozik dago taldearen lanagaz

Porrotek ez dute beti hausnarketa ezkorra eragiten. Aurreikusi zitekeen moduan, Durango Ilarduyak galdu egin zuen etxean, Getxo lider ahaltsuaren kontrako lehian (15-37), baina

Aratz Gallastegi entrenatzaileari "sentsazio onak" utzi zizkion partidua: "Errugbi jokalariek gaitzazko erakutsi genuen". Defentsan eta baloien jabetzan "asko hobetu" zutela deritzo, eta "partidua amaitu arte ez genituen besoak jaitsi".

Bestalde, euskal ligan, derbia jokatu dute bihar Kanpaz-Durango eta Elorriok. Partidua Arrasaten jokatu dute 18:00etatik aurrera.

A.Gallastegi: "Partidua amaitu zen arte, ez genituen besoak jaitsi"

Durangaldeko futbol taldeak goian dabilta

Elorrioko emakumeak lider daude; lurretako, Zaldua eta Abadiño ere bide onetik doaz

Durangoko Kulturala denboraldi itzela osatzen badabil, beste hainbeste esan daiteke beheagoko mailetako hainbat talderi buruz ere. Emakumeen bigarren erregionalean, Elorriok lider darrai. Orain arteko hamar neurketatik zortzi irabazi eta bat berdindu du. Gizonak ere maila handian dabilta goren mailako

Elorrio emakumeetan eta lurretako zein Abadiño gizonetan, lider dira euren ligan

estreinako urtean, eta hirugarren dira oraintxe. Maila bat beheago, lurretako lider da, Lekeitio 0-2 menderatuta. Zaldua ere ez dabil urrun; puntu bira dute lehenengo postua.

Bigarren erregionalean, Abadiñok lidertza partekatzen du, Galdakao Bgaz eta Lezamagaz. Asteburuan bana berdindu zuten Astrabuduako laugarren sailkatuaren kontra, eta puntu baliotsua batu zuten.

Kontrako aldean, Berriz, ohorezko mailan, eta lurretako, emakumeen lehenengo erregionalean, ez dabilta hain ondo. Biak azken bigarren daude, eta puntuak behar dituzte. ■ J.D.

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

Olabegogeaskoetxeak Espainiako Txapelketako rallyan parte hartuko du

Atxondarrak Aketza Santakoloma durangarra izandu du kopilotu Suzukiaren bolantean; 2012an Espainiako Rally Txapelketako lasterketa guztietan parte hartzeko asmoa dute



Ander Gorrotxategi, Durangoko Udaleko ordezkaria, Santakoloma eta Olabegogeaskoetxeagaz.

Gaur iluntzean eta bihar egun osoan zehar, irudietako Suzukiaren barruan ibiliko dira Iñigo Olabegogeaskoetxea atxondarra eta Aketza Santakoloma durangarra Madrilen. Izan ere, eguazten goizetik han daude, Espainiako Rally Txapel-

“Zer maila dagoen eta zer eman dezakegun jakiteko gogoz gaude”

ketako azkeneko proban parte hartzeko. Hile asko daramatzate lasterketa hori prestatzen, eta “urdu-ri bai, baina batez ere gogo handiagaz” daudela aitortu digu Olabegogeaskoetxeak.

Asteburuko lasterketa proba moduan hartuko dute:

“Horrelako lasterketa batean parte hartuko dugun lehenengo biderra izango da; estatuan zer maila dagoen eta guk zer eman dezakegun jakin gura dugu”. Esperientziagaz gustura gertatzen badira, asmoa datorren urtean, apiriletik aurrera, Espainiako Rally Txapelketan hasi eta amaitu lehiatzea da.

Suzuki bategaz ibiliko dira, “merkeena delako eta denok antzeko prestazioekin ibiliko garelako”. Zirkuituari buruz zera dio: “Ez ei da konplikatu, baina goizaldeko izotzak ibilbidea labainkortu dezake”. Horrez gainera, beste *handicap* bat ere badute: kopilotu eta pilotu lege elkarregaz korrituko duten lehenengo aldia izango da.

Esperientzia Euskal Herrian
Olabegogeaskoetxeak esperientzia zabala du Euskal Herrian. Hainbat slalom irabazi ditu, eta bederatzi urtez —orain 28 urte ditu— rally txapelketan aritu da, lehenengo bosten artean sarritan sailkatu dela. Etapa berri honetan agur esango dio azken urte bietan gidatu duen BMWari. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Indautxu

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

GOREN MAILA

Elorrio - Padura

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Umore Ona

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Berango

Zapatuan, 15:30ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeko - Erandio

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Sasikoa B - Lagun Onak

Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian

Kurutziaga - Gernika

Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Elorrioko B - Mendibeltz

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

Abadiño - Lagun - Sumi Muguru

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Tabirako-Fidalgo Vecino

Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO MAILA

Tabirako-Deustu Lolola

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

GABONETAKO LEHIAKETAK

ELORRIOKO II. BALKOIEEN GABONETAKO APAINKETA LEHIAKETA

OINARRIAK:

1. Elorri bizi diren eta lehiaketan parte hartu gura duten herritar guztiek Marimar mertzeriara jo beharko dute, euren datuak uzteko (izen-abizenak, parte-hartzailearen helbidea, harremanetarako telefonoa)

Azaroaren 22tik abenduaren 7ra eman ahal izango da izena.

2. Edozelakoak direla ere, apaingarriak gabon girokoak izango dira.

3. Balkoiak abenduaren 6tik urtarrilaren 7ra arte egon beharko du apainduta.

4. Sariak ondoko hauek dira:

1. Elkarteko saltokietan trukatzeko 400 euroko txartela.
2. Elkarteko saltokietan trukatzeko 300 euroko txartela.
3. Elkarteko saltokietan trukatzeko 200 euroko txartela.



elorriko merkatarien elkarte

ELORRIOKO ERAKUSLEIHO-LEHIAKETARAKO DEIALDIA

OINARRIAK:

1. Parte-hartzaileak EMEko kideak izan behar dira.

2. Erakusleihoak eguberrietako apainagarriekin apaindu behar dira.

3. Interesa duten komertzioek izena eman beharko dute abenduaren 5a baino lehen, 94 682 10 70 telefono zenbakira deituta

4. Komertzioetako erakusleihoak abenduaren 9tik 24ra apainduta eta ikusgai egon beharko dira.

5. Sariak ondoko hauek dira:

1. 600 euroko txartela.
2. 300 euroko txartela.

6. Abenduaren 27an jakinaraziko dira irabazleen izenak.

laguntzaileak



LAUHANKA[>]



Jostailuak, txakurrarentzako baliagarriak eta tresna hezigarriak jabearentzako

Txakurraren osasunean eragin dezakete jostailuek, onerako zein txarrerako; hainbat faktore kontuan hartuz, animalia eta jabearen arteko erlazioa hobetu daitekeela diote adituek

Sarritan ez da erraza izaten jabea eta maskotaren arteko hartu-emanen sakontzea, eta hori bideratzeko aukera jostailuek eman dezakete. Txakurraren kasuan, bere baldintzetarako egokia den jostailu bat erosi, elkarrekin jolastu eta apur bat hurreratzea lortuko genuke. Gainera, txakurraren adimenean eragiteko ere balioko du olgetan ibiltzeak. Ikerlariak diotenez, jolaserako erakusten duen erraztasunak txakurrak adimen maila handia duela ondorioztatzen du.

Jostailu bat erosterakoan, bi faktore hartu behar ditugu kontuan: animaliari gustatzea

eta bere osasunerako kaltegarria ez izatea. Izan ere, gertatu daitekeena da haginka egiterakoan zatiren bat irenstea.

Babes lana

Jostailuek, txakurrak duen adinaren arabera, babeseko eta garatzen laguntzeko lana egiten dute. Adin gutxiko txakurrarentzako, gailu txiki eta bigunek horterria sendotzen lagundu dezakete, baita haginka egiten ikas-teko ere.

Horren gazteak ez diren txakurrek, aldiz, bakarrik ez sentitzeko aukera izango dute gure opariekin. Baina, batez ere, jabeak animaliagaz tratua edukitze-

ko egokiak dira adin horretan. Heldulekua duten eta haginka egiteko balio duten tramankuluak, saria duten pilotak eta disko hegalaria horren adibide izan daitezke.

Materialak

Aurrez esandako moduan, onerako zein txarrerako eragin dezakete jostailuek txakurrengan. Hori dela-eta, komenigarria da materiala aintzat hartzea erosketa egiterakoan.

Txakur txikien kasuan, nylona edo latexa dira material onenak. Hauekin, lasai egin ahal izango du haginka. Zerbait gogorragoa emanez gero, min

hartzeko arriskuan egongo da. Txakur handiagoei dagokienez, kautxo eta biniloa dira gai eraginkorrenak. Material hauekin egindako jostailuak gaitzago apurtzen dira, eta txakurraren haginkadek oso zati txikiak soilik pitzatu ditzakete. Zati txiki hauek ez dira osasunarentzako arazo, normalean.

Dena dela, kautxuaren inguruan, azpimarratzekoa da gai birziklatuagaz egindako jostailuak direla arriskutsuenak. Izan ere, elementu natural gutxien erabiltzen da kautxuzko gailuok egiteko, eta hauek iren-tsiz gero arazoak sortu daitezke digestio-aparatuan.

Jostailuari haginka egiterakoan, zati bat irenstea gertatu daiteke

Komenigarria da materiala aintzat hartzea erosketa egiterakoan

Txakur txikien kasuan, nylona edo latexa dira material onenak

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

Eusko Labelaren K-rekin
Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

Kalitatea Fundazioa



Zu zaintzeko zaindua

Euskal Okela Carne de Vacuno del País Vasco	Euskal Esne Bildotsa Cordero Lechal del País Vasco	Gernikako Piperra Pimiento de Gernika	Hegaluzea eta Hegalaburra Bonito del Norte y Atun Rojo	Euskal Baserriko Arrautza Huevo de Caserío Vasco	Euskal Baserriko Oilaskoa Pollo de Caserío Vasco	Euskal Esnea Leche del País Vasco	Ibarrako Piparrak Guindillas de Ibarra	Eztia Miel	Euskal Tomatea Tomate del País Vasco	Arabako Patata Patata de Alava	Euskal Babarrunak Alubias del País Vasco
---	--	---	--	--	--	---	--	----------------------	--	--	--

Eusko Labela: ona den seinale



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- | | |
|--|--|
| Abadiño
• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA
Zaldibar
• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8
Otxandio
• GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25 | Durango
• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1
• INAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10
• OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3 |
|--|--|

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

hile honetako irabazlea:



Itziar Arana
(Durango)

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezri, Idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botella 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakolinezko bonbol-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotsaz edo Euskal Baserriko Oilaskoz trukatzeko.

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

Saldu / Erosi Errentan eman / Errentan hartu Lan eskariak / Lan eskaintzak Galdut / Aurkitu Eman / Hartu	Eguazteneko 19:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.
--	---

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Elorrio. Berritutako etxe eguzkitsua salgai, trastelekuarekin. Nahi izanez gero, garajea ere erosteko aukera. Negoziagarria. 615 732 727.

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleku eta ganbara. Eguzkitsua. 3 balkoi. Igogailu jar-tzekotan. Berogailua eta leiho berriak. Etxe guztiak kanpora ematen du. Tel: 655 712 105

Abadiño. Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Negoziagarria. Telefonoa: 667 882 338.

Abadiño. Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskigotokiarekin. Denak kanpoalde-runtz ematen du. Garajea eta trastelekua. Oso polita. Deitu eta ikusi! Tel.: 615 007 216

Abadiño. Muntzaratzen. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, igogailua, trasteleku eta garajea. 4. solairua, ia berria. Prezioa: 217.000 euro. Telefonoa: 688 686 587

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. Tel: 647 777 392

Bilbo. Etxe handia eta eguzkitsua. Basurtu auzoan, ospitale-tik gertu eta tren geltokia-ren ondoan. Basurtuko beheko partean, Indautxu ondoan. 180.000 euro. Aukera paregabea! Tel.: 635 727 937

Durango. 98 m2. Oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta terraza komunitarioak. Altzariz betea eta guztiz jantzia. Garajea eta igerilekuarekin. Telefonoa: 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela.

Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Bere-hala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. Telefonoa: 607 715 353

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! 659 425 890

Durango. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzita eta erre-formatua. 189.319 euro. Telefonoa: 699 409 959

Durango. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro. Deitu 17:00 etatik aurrera: 696 255 083.

Durango. 94m2. Herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea eskigotokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrek. Prezioa: 343.000euro (57m). Tel.: 615-76 08 01.

Durango. Sasikoa kalean. 3 logela, komuna, egongela-komedorea, sukaldea eta ganbara. Prezio onean. Garajea ere bai, nahi bada. Telefonoa: 679 382 369

Elorrio. Berritua, 124 m2, gas naturaleko berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derri-gorrezkoa da ikustea. Prezioa: 264.500 euro (44.000.000 pta). Telefonoa: 685 734 825

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean berriztuta dagoen jaure-gian, 70 m2-ko pisu polita, 2 logela, sukalde eta egongela, komuna, 9 m2-ko trasteleku, 19 m2-ko garaje itxia. Dena 303.000 euro; trasteleku eta garaje barik 283.000 euro. Nagore: 653 748 001

Garai. Oar-erdikoa baserria, 6. Garaiko San Migel auzoan. Udaletxetik 150 metrora. He-

goaldera begira. 300 m2. 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erreformatzeko. Proiektua aurkeztuz gero, etxebizitza 2 egiteko aukera. Tel.: 639 833 489

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. 655 702 647

